

«ETA asesina»

Ikaragarria, uste dut, ikaratzeko gauza bat da. Ikaratzekoa benetan: Aragoekoa deitzen dioten geltokitik irten, zuzenean sartu naiz telefono batetan, puskaturik bait zegoen, kalean behera joan behar izan dut beste kabina baten bila. Puskatua hau ere. Sartu hirugarrenean, «ETA asesina» hemen ere... Marka duk hauxe! Jakin behar diat, bada, Barcelonan inon ba al dagoen telefonatzerik, begien aurrean «ETA asesina» bat eduki gabe. Hiru kabinatan sartu eta hiruretan «ETA asesina», letra berdin-berdinez.

Catalunya Plazatik gora, ez dakit zenbait kabina pasa ditudan «Paseo de Gracia»n, «ETA asesina» irakurriz. Baten-bat ibilia da hemen kabinak dekoratzen.

Igande goizean Katedralera urreratu naiz. Ez dago ordu hoberik, koruko aulkiteria eta, miresteko. Beste txokoak ere orduan egoten dira argituta. «Es más fácil organizar la guerrilla contra los contrarios, que organizar la industria, organizar la agricultura», etab.: kontxo, kanta zahar hau sermoian ere! Barcelonako Katedrallean, hamabietako mezatan. Urtarrilak 28a zuen.

Irten, sardana ikusi, buelta bat ematera noa: katedralaren hormetan ere ibilia da gure pintorea. Eta handik atzerako kale baxtarretan, Aingeruaren Portalean, eta... Saiatu da norbait hementxe. Ikara larri haundiak pasa ote zituen, pintura klandestino horiek egiterakoan? Harrapatu ote zuen, gero, poliziak, gaiztagin hori?...

Bestelako buruhausteak ziren, Barcelonara ekarri nindutenak. Baina begietatik, belarrietatik eta sudur zuloetatik ere, nahi baduzu eta ez baduzu, horixe sartzen dizute, euskalduna baldin bazara. Barcelonan hori bada, zer ote da Madrilen? Susmoa daukat, norbaiti entzuna edo irakurria diodala noizpait, Estatuko herri diferentetek elkar aditzeko eta beste herririk Euskadiren inpresio oker bat ez edukitzeko, ahalegindu nahi omen dutela beraiek. Holaxe sortzen da, apika, Euskadiren eta Euskadiko problemen irudi on bat, Barcelonan. ■ *Gabriel Noss.*

«Metropoli» Moskun

8 aletako aldizkari daktilografiatu bat (21 x 29 zm. eta 120 or.) garrantzizkoa izan al daiteke?

Bai, nonbait, kondizio pare batekin: Sobiet Batasunean sortua izatea eta aldizkari anti- edo ez-ofiziala izatea.

Ez dakit zein neurritan merezi duen inportantzia ematea, baina Mendebaleko zenbait aldizkari eta egunkarik baietz pentsatu du. Ez zaie beharbada horretarako arrazoirik falta.